# GABIRIA

– Gipuzkoa –

Donostiatik 53 kilometrora dago Gabiria, Goierrin, Gipuzkoaren bihotzean, Eztanda haran ederraren zelatan den gain batean. Herriaren erdigunea osatzen, eliza eta etxe batzuk inguruan, baina inguruko muinoetan ere, badira han-hemen auzoak eta etxeak.

1350. urteko idazkietan dator aipatuta Gabiria, Iruñeko artzapezpikuaren barrutiko errentetan hango parrokia azaltzen baita, Algaiako Andre Mariaren izenpean azalduta ere. 1384an, beste batzuek egin zuten bezala, Segurarekin bat egin zuen. Dena dela, XV. mendean Areriako Alkatetza Nagusikoa dela dator jasota. Azkenean, 1661. urtean, independentzia lortu eta hiribildu titulua eman zioten.

El pueblo de Gaviria, a 53 km de San Sebastián, se encuentra en el Alto Goierri, en el corazón de Gipuzkoa, en un alto dominando las espectaculares vistas del valle del Estanda. El núcleo del pueblo está formado por la iglesia y unas cuantas casas levantadas alrededor, pero existen muchos otros caseríos dispersos que forman barrios en las laderas de las colinas circundantes.

Gabiria se menciona en la documentación en 1350, cuando su parroquia aparece en el libro de rentas del Arzobispado de Pamplona, aunque con el nombre de Santa María de Algaya. En 1384, como otras localidades, se une a Segura, aunque en el siglo XV pertenece a la Alcaldía Mayor de Arería. Obtiene su independencia y el título de villa en 1661.

## *Jasokundeko Andre Maria eliza*
## *Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción*

Gabiriako eliza Alkaingo Andre Mariaren eliza izenarekin ere ezagun da inguruan. XVI. mendean altxatu zuten, eta XIX.ean berriztatu zuten. Hiru nabe ditu, ertz-gangaz estalita, eta gurutzadura, izardun gangarekin.

Tenpluaren oinetan, egurrezko elizpe batek babestuta, ataria ageri da. Oso bakuna da, eta urre-koloreko harriz dago landuta. Hiru arkibolta eta deskarga-arku zorrotzak ditu, erdian baketoi sendoa, alboetan moldura konkaboak ditu, eta harroin antzekoetan amaitzen diren espazio lauak daramatza. Kapitelarena egiten duen inposta lau jarraitu baten gainera datoz horiek denak, baketoidun zangoek eutsirik angeluetan, eta harroin bakunekin harrizko banku baten gainean.

Elizaren barruan, berriz, bataiarri txiki bat dago, pieza bakar batean landua. Ur bedeinkatuaren ontzi modura darabilte gaur egun, tenpluaren sarreran, koruaren azpian. Oso ontzi bakun eta baldarra da, eta ez du batere apaingarririk.

Bi aztarna erromaniko horiek XIII. mendearen amaierakoak direla uste dute.

Testua eta argazkia: REA

También conocida como Santa María de Alkain, la iglesia de Gabiria fue construida en el siglo XVI, aunque fue reformada en el XIX. Consta de tres naves, cubiertas con bóvedas de arista, y crucero, con bóveda estrellada.

A los pies, bajo un pórtico con estructura de madera, se abre la portada, muy sencilla, labrada en piedra dorada. Consta de tres arquivoltas y sobrearco apuntados, que se articulan con un grueso baquetón central flanqueado por dos molduras cóncavas y espacios lisos, terminados en una especie de basas. Éstas se apoyan sobre una imposta corrida lisa, a modo de capitel, apeada sobre unas jambas con baquetones en los ángulos y basas sencillas, elevadas sobre un banco de piedra.

En el interior se conserva una pequeña pila bautismal, tallada en una sola pieza, utilizada hoy como aguabenditera a la entrada del templo, debajo del coro, absolutamente simple, tosca y carente de ornamentación.

Estos dos vestigios románicos se pueden datar en un siglo XIII avanzado.

Texto y foto: REA



*Portada*

*Portada*

## *Bibliografia* / *Bibliografía*

López de Ocáriz Alzola, J. J., II, 1997a, pp. 905, 911-912; Linazasoro Mate, I., 1978, pp. 213-215; Silván, L., 1974a; Urteaga Artigas, M., 1992, pp. 151-152.